



aztertu NEWSLETTER

Datozen jarduerak:
IRAILA-URRIA
2026

Irailak

14

AZTERKOSTA KANPAINA

NATURA KANPAINA



Azterkosta eta Natura kanpainak bueltan dira!

Azterkostaren laginketa-materialekin, kostaldea modu praktiko eta parte-hartzailean ikertu ahal izango duzu. Eta Naturaren ikerketa-materialekin, biodibertsitatea aztertu eta ekosistemen mundu liluragarrian murgildu ahal izango zara.

Gainera, ikastetxeek, udalek eta beste erakunde batzuek esperientzia osatzeko aukera izango dute:

- Itsasminenez eta Arin-arin erbiaren abenturak: ikasteko eta goatzeko txotxongilo-ikuskizunak.
- Azterkosta Txiki eta Natura Txiki: 3 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako mailegu-materialak.
- Erakusketa ibiltaria, natura eta ingurumen-sentsibilizazioa beste espazio batzuetara eramateko.

Eginez ikasi, jakin-mina piztu eta gure inguruneaz goatzea guztion eskura dago.

Informazio gehiago eskuratzeko eta eskaera egiteko:

Natura



Azterkosta



Zumaia



AZTERKOSTA IRTEERA



Ezagutu Zumaiaiko algen mundu liluragarria!

Ikasi algak identifikatzen, ezagutu itsasoaren osasunerako duten garrantzia eta bizi ezazu zentzumen guztientzako esperientzia bat: begiratu, ukitu, usaindu eta baita jangarriak diren algak dastatu ere. Gainera, Azterkostaren laginketa-kitarekin, itsasoko uraren egoera ekologikoa aztertuko dugu. Natura, zientzia eta zaporea esperientzia paregabe batean.

Etorri kostaldea beste begi batzuekin ikustera!

**Gutxieneko
adina 10 urte.*



10:00 - 13:00
Dohainik!


+ info /izena eman



Bermeo



MISIO URDINA ITSASONTZIZ



Gaztelugatxe itsasotik deskubritu !

Ontziratu Bermeon eta ezagutu ingurune ikusgarri hau beste ikuspegi batetik. Gainera, zientzialari bihurtuko gara egun batez eta, Azterkostaren laginketa-kitarekin, tailer bat egingo dugu gure itsasoko uraren egoera ekologikoa ezagutzeko. Natura, abentura eta zientzia itsaso zabalean!

*Publiko
guztietarako!*



10:15 - 12:45
Dohainik!


+ info /izena eman



EKOETXEA URDAIBAI



ASTE KLIMA



Ospatu Azterturekin Euskadiko Klima eta Energiaren Astea!

Zatoz Ekoetxea Urdaibaira eta gozatu jardunaldi batez, jarduera eta tailer ugarirekin, ikasteko, esperimintatzeko eta gure planeta hobeto zaintzeko moduak ezagutzeko. Parte hartu Azterturen tailerretan eta aprobetxatu Urdaibaiko txoko paregabe hau ezagutzeko!



10:00 - 14:00

+ info

